

AURRETIKO AGIRIXA

*Borondate oneko gizonak, mundu onetan, sarri ibillera la-
tzak :*

Mundu urriñetatik ziar
eten bako bidietan,
egunaz, euzkixa lagun,
eta izarrak lagun gabaz,
zetorren Ibiltarixa
bere buruagaz berbetan ;
oñetakuak zar-zar,
ez dakitt nundik norako
bide luziak oiñduaz.

*Munduak ain urri emon dittuan gizonetariko bat da, lurre-
ko nekiak gaindu dittuana, bertsu onek diñuan Ibiltarixa.*

*Arbolia letz, gizona be, bere frututik ezautzen da onduen.
Ibiltarixa, bai ideaz ta bai egintzaz, bere asmurik onenak eskei-
ñiaz pasau da mundutik. Iñoiz on egiñaren paguari begiratu ba-
rik, naiz ta azkenerako bere burua erbestietan ziar urriñetako
lur otzetan eratxitzera kondenauta agertu biar :*

ala geixago ez bertako
t'amaittu biar erbesteko.

.....
gizon apurtu bakarra
bizixan illunabarra...

Baiña, eukan apurra kenduarren, emen gelditzen da bere berbia denboriaren jabe eiñda. Walt Whitman'ek ziñuan letz: "Au ezta liburu bat. Ikutzen dabenak, gizona ikutzen dau".

Bertan agiri jaku egilliaren animia billuts-billutsik. Sarri esango desku bera ez zala aukerakuena bertsu onek eskribitzeko. Baiña nik baietz uste. Bera baiño aukerakuagorik nor, bere pentsamentua ta bere bizitzaren esperientziak kontatzeko? Ta nork bere bizitza aiñakorik? Emen eta gaiñerako liburuetan gelditzen jaku bere animaren zati bat, gerokuak jakin deixen gizon biargin baten pentsamentua, borondatia, ibillerak eta bere errixaren izketia zelakuak ziran. Danen gaiñetik, bere maitasuna Gizona dala; agirixan esango deskuan bezela:

... nere biz'luzian
nik ikusi izan dotena,
neregan eta bestienian,
da, Gizonan Zorimena,
—zati aundi baten beintzat—
norberan obria dala.

Batez be obra ori beran moduan betetzen danian, bestien obeto izanari lagunduaz, mundu obe bateri begira, bere buruarrentzat saririk opatzeka. Urretxindorrari eskintzen detsazen bertsuetan ederto diñuan letz, berekautan: urretxindorrak daukanik arrigarrixena ez dala ez bere iztarrixa eta ez bere soiñua, baizik utsari duan kantatzeko doaia, berak moduan; bakarrik, bera ez-tala "txirixo koittau bat besterik". Ez neuke esango bere kantua "txirixo koittau" batena besterik ez dala. Munduari frutu onurakorrak emon detsezen geixenak dira izatez apalak eta Ibiltarixa ezin zeikian izan euegandik apartekua; ta, biar bada, bestelako guztiak goguan izatera, bere egintzetatik gauzarik kaxkarrenak izango dira bere liburuak. Ba, bertsuak eta izlauzkuok, bai euskeraz eta bai erderaz, duan eskindu deskuzen letz jardun eban duan mundu obe baten alde, gizonen alde. Baiña:

Sari bako gauzetan
aritzen danari,
ez interesa aittatu,
alperrik ba ari.

Ola da nik ezautu dodan Ibiltarixa, alkarrizketa labur baten eskua emon zestanetik betiko gogoratuko dodana:

...bere kapelapeko
igartutako arpegixan,
zeru urdiñ guztietako
laztanen gozua zeroyan;
bidietako ikuskizunen
ederra begien barruan,
eta ixa egun urteko
soñuak belarrixetan.

* * *

Gure Ibiltarixa, Toribio Etxebarria Ibarbia, Eibarren jaixo zan 1887-ko abrillaren 27-an, Txirixo-kaleko 6-garren numerua eroian etxian. Azkenengo gerratian galdu zan etxe ori. Ez zan pasau iñungo eskola nausittik, baiña berezkua ekarren. Bere buruz ikasi eban dakixanik geixena. Lelengo ofiziua, mutikutatik, grabauko artesianian izan eban, eta 26 urtegaz sartu zan ayuntamentuko sekretaritzaren eskribiente urteko 1.250 pesetako soldatiagaz. Umetatik liburu-zalia etorrenez, gazterik asi zan jakintzaz kezkatzen ta ornitzen. Ideaz sozialista zan, Amuategi, Meabe ta Madinabeitia'k sortu eben eskolatikakua, eta biargin arazuetan sartua ibilli zan bere gaztarotik, sindikatu, koperatiba ta abar, ziran bere gazte denbora orretako ardurak. ALFA sortzen eta aurrera ataritzen biarrik geixena bere lepora artu eban, berak eiñ eban Notarixarako sortziaren eskrituren borrarora be, ta bertako zuzendari izan zan amabost urtian; ta bere azierturik aundiña, dudarik barik, armagintzatik josteko makiñak eitxera aldatzia izan zan. Gero, errepublikaren asieran, iru urtian izan zan Campsa'ren ordezkari Gobienuaren aldetik izentaua, eta azkenian bertako zuzendari. Gerratian erbesteratu zan munduz-mundu eta aspaldiko urtietan Caracas'en bizi da.

“Umetako ames bat” izeneko bertsuetan ikusi geinkianez, jakintza egarrixa ase eziñik igaro dau bere bizi guztia Toribiok. Iñoiz ain larria dan Bizitzaren Unibersidadian eiñ zittuan bere ikastaruak. Batez be, Eibar'ek 1920-30'ian izan zituan krisis es-

tuetan. Bere ikasixok frutu onurakor ugari ekarri eben Eibar'ko familixa askorentzat. Gure gizon au, denborak aurretik konturutzen zan mundua, gizonon justutasunerako, sozialismu batera jo biar ebala, eta alde orretara emon zittuan bere gaztaroko indarrak. Bere jokera ori ez zan abadieri txapela ez kentziarren, Txomin Agirrek Garoa'n diñuan bezela; ezta "Kirikiño"ren Bigarrengo Abarrak dakarren "Bitara ulertu" ipuiñeko txapelkentzia be; ez. Gizon batzuk beste batzuk ez zapaltzia bai; guztientzat eskubide bardiñak biar diralako. Ta lan onetan bertan ikusi gainke orduko sozialista zarren morala noraiñokua zan. Ezin ukatu euren zintzotasunik. Euren maixua izan zan Amua-tegin itzak doguz agiri ederra: "aministratzeko, gizonik zintzue-na aukeratu, ta gero lapurra letze zaindu". Moral orren oiñarriak sarri billauko doguz bertako bertsuetan; ona ta txarra teoriatz errezak dira:

Baña, lenengo bizi : gero
datorrela Filosofia ;
ba errezago jan ezkero
Gizonak ona izatia.

Idea aretako moralaren aurrian txiki ikusten dot nere bu-rua. Gaur ez dot euren erakusbiderik somatzen nere erritarren artian. Norberakoi gabiz bakotxa bere aldetik ; baiña erriko semiak konturatu biar litzakez, gaurko munduaren aurrian, industria bizitza dogunez, ez daukagula salbaziñorik guztion alkartasunian izan ezik.

Baiña, justutasun ori nausitzia erreza ez danez, sarri, gaitza bere nundikakua danik be barik, larri-miñez jardungo da Ibil-tarixa, Job'en antzera, "Anai ondatua" lako protestazko bertsuak eiñaz :

Ai, au zibilizaziñua !

.....
Ez, eta milla bidar ez,
eta madarikatua
gauzak dittuana gura errez
bittarte dala dirua !

Bestetik gizonaren sortzetikako kezka daroia bere barruan ondo txertatua, esistentziaren kezka. Beretako, fede kontua, bizitzaren errazoi nausixago bat billatzia da. Asko arduratzen dala? Zentzun aundidun gizonena da ardura ori. Zentzun gutxikuena itxu-itxuan ukatzia edo fedian itxuan sinistia. Toribiok ondo daki ezin eiñdako problema izugarrixa dala, eta zoritxarrekuak esperantza guraz izatia bizitza beraren legietariko bat badala gizonaren esistentzia guztian. Zentzudun gizon bakotxari dagokixo bizitzari errazoiaren bat aurkitzea, naiz federik barik edo naiz bakoitza konprendidu al daben fedez. Èsate baterako, León Felipe poeta aundiak diñuan erara:

Nadie fue ayer,
ni va hoy,
ni irá mañana
hacia Dios
por este mismo camino
que yo voy.
Para cada hombre guarda
un rayo nuevo de luz el sol...
y un camino virgen
Dios.

Olako gizonegaz, zerbaitten sinistu biarrak biotzian ainka eitxen detsanagaz edo naiz dudak larri-mindurik bizi diranegaz eta baita era orretarako pentsamentuz etsipenez bizi diranegaz, noranai jua leike, konzientzia eldu baten jabe diralako. Ibiltarixak, bere ustezko argi bat billau eban, betikotasunaren esperantzaren argia; eta on egiñaren konzientzia garbixan dagonak zer geixago biar dau? Beregan eztago ustelkeririk. Danori ardurara jakun auzi onetan be ezin esan garbi ta baliente jokatu ez dabenik, bere iritziña zintzo azalduaz.

* * *

Bordelen (Burdeos'en) euala asi ta Caracas'en jarraitu eban euskeraren alderako biarretan. Ta, ugarixa benetan bere emaitzar, Euskera, Euzko-gogoa, Egan, Olerti eta Eibar errebigetan eskribidu dau euskeraz, bertsoz eta izlauz, bai itxulpenez eta bai

bere buruz sortutako biarrekin. Eibarko aditzaren estudixo bat eiñ eban, Flexiones verbales de Eibar izenagaz "Euskera"n (1). Orduan izan neban aukeria bere gaiñian zerbait esateko, Presentación izenagaz erderaz eiñ nentsan sarreran. Geruago, Lexicón del euskera dialectal de Eibar (Arrate'tikuen izketia), "Euskera"n bertan (2), 10.000 fitxa inguru jasotzen dittuana. Biar orregaittik, ondo merezixa eukanez, Euskaltzaindiak (Euskal Akademiak) bere laguntzaille izendau eban 1965-garren urtian. Izendapen au aintzakotzat arturik emon nittuan zenbait barri urte bereko "Eibar"en (3).

Flexiones verbales de Eibar, Lexicón del euskera dialectal de Eibar eta oraingo Ibiltarixanak (Arrate'tikuen izketango ale-giñak) liburuagaz, gerokuentzat agiri ederra geldittuko da Eibarko euskeria zer izan dan jakitzeko. Ze, Toribiok, onegaz, erakutsi nai dau aurretiko bixen gramatika ta lexikografia teoriak egin-tzaz beteta, idatziaz, Eibarko berbetan ipiñixaz. Bere biar onen onduan, nere izlauzko Zirikadak, Eztenkadak eta Eibarter zelebriak urri gelditzen diraz; biar txartxar bat besterik ez diraz.

Baiña ezta bakarrik Eibarko euskerian lan sakon bat. Ori utsa litzake bestelako sakontasunik barik. Toribiok bertan emoten dit-tu bere pentsamentu, sentimentu ta zenbait egintzaren barriak, irakortzailliak ikusiko daben letz.

Bertan erabiltzen dittuan idea ta kontaera asko bere erde-razko lanetan be erabilliak ditu. Erderazkuok be ezaugarrixak dira bere pentsamentu osuaregaz jabetuko bagara. Ze, bere ja-kintza zabala ezta gai gutxi batzuen estuan sartzeko modukua. Igezko urtian azkenaldera argitaratu zitxuan Mexico'n: Metafísica a Urcola, lelengo aldiz 1935-ian eskribidu ebana, baiña lan aura galdu jakonez, 1941-ian barriz eskribidu eban; eta lelengo liburu onek izan dittuan arrera onak ezautzeko irakurri geinkez

(1) "Euskera", VIII-IX, pp. 53/130. Euskaltzaindia. Bilbao, 1963-64.

(2) "Euskera", X-XI, 658 páginas. Euskaltzaindia. Bilbao, 1965-66.

Esta es la primera y única edición del *Lexicón*. J. M. Seminario Rojas, en "El Correo Español" de Bilbao (Trabajo reproducido parcialmente en la revista "Eibar" N.º 93, pág. 7, de marzo de 1967), confunde la fecha de terminación de la obra al decir que tuvo una primera edición en Caracas en 1961.

(3) "Eibar", N.º 80, p. 2, Noviembre, 1965.

Santamaria'k Urteaga'k eta Artetxe'k eñ zetsezen artikulu mamintsuak (1). Ondorian agertu eban La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo, izenak diñuan letz bere idea politiku ta orduango egintzen barri emoten dabena, ta iñoiz Eibar-ko istorixia gaurkotu edo gaurrera artetu biar bada goguan izan biarreko liburua dogu; au ostera 1958-an eskribidutakua dogu, bestia bezela 1966-an argitaratua izanarren. Bertan Mexico'n argitaratu barri dogu El Hijo del Hombre; au ostera 1949-an eskribidutakua dogu. Iruretatik lelena mundua ta gizonaren bizitzaren konzeptuen gaiñian eiña da, bigarrena politikazkoa, eta irugarrena Ebanjelixuak oiñarri arturik eñ dittuan ensaiuak. Beste laugarren bat dauka, Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración, laster agertuko dana. Ta badau beste bat be iñoiz argitaratu al izango dan eztakiguna, Viaje al país de los recuerdos izenekua dala uste dot aintziñako Eibarren gaiñian diarduana. Ugari bezin ona da bere frutua, mundu onetan biar leukian pagurik izango eztabena.

* * *

Ta, amaitzeko, liburu onen azalpen labur batzuek eiño dituraz.

Au da euskeraz eñ dabenetatik libururik nausiña. Euskera beraren aldetik begiratuta, iñoiz joskera erderatikakoagaz nastaurik darabil, geixenetan bertuen puntuak olan eskatu detsalako, baiña ortik aparte, itzez, aditzez eta esaeraz aberastasun aundixa dauka. Guk gaziok ez dakiguzen itz-joko asko darabiz berak, oin zarreri bakarrik entzuten detsaguzenak, eta emen jaso ez balira betiko galduko ziranak.

Bere lanegaz, Eibarko euskerian dokumentu ederra lagatzen desku. Ta, agiri ugarixa ta aberatsa izanarren, ainbeste gaizki berba eñ da eze, Eibarko euskeriaren gaiñian, iñoiz badirudi Toribiok berak be gutxi-etsirik daukala:

(1) C. Santamaria: Eskutitzak. Aspaldiko sozialista eibartar bati. "Zeruko Argia", 205 zenbakia. 1967-ilebeltza, 29.

C. Santamaria: Aspectos. "Metafísica a Urcola". "El Diario Vasco". San Sebastián, 5 de febrero, 1967.

J. Arteche: ¡Qué lejos y qué cerca! "La Voz de España". San Sebastián, 28 de febrero, 1967.

Garbatze biarrik ez dot,
naiz baso-loria bezela,
aintzakotzat artu ez iñok
Eibartar eitten dotela.

Baiña berak ondo daki gure euskera, gramatikaz, askok uste baiño aberatsagua dala. Ta, Altube berak be uste ori eukan (1), eta "Orixe" berak be bardin (2), Eibarren "Itxano" (= i-ta-no, to-ta-no) ain ondo erabilli biarrak arritzen eban, ta ejenpluztat artu geinkez Toribiok bere ezkon'anai eban Kandido Arrizabalaga "Apotxiano"ri eiñdako bertsuak. Altubek barriz, Aita Bartolome'n lan aundi eta ikaragarrixa, goittik asi ta beraiño, eibartarren verbo-sistemagaz idatzia dagola ziñuan. Ta danok dakigu Bizkaiko euskeriaren literaturan Fray Bartolome dala nausi. Ta, ori, Flexiones verbales de Eibar'en garbi azaltzen desku.

Penagarria bada be, Eibarko euskera aspaldi murriztu zan ta aurki juango jaku eriotzaren bidetik. Gurasorik geixenak dira euren semieri erakusten alegindu ez diranak, ta etxerik geixenetan eiñ ezik, kalian girua falta. Errezena izan da erbestetik etorri dan jentetzari errua botatzia. Baiña ondo jakin bear genduke, bakotxak berak aintzen dabela norperaren etxian, ta guraso guztiak pixkat alegindu balira, norperan izketiari eusten, jatorrizko giruaren zerbait gordeko zan. Baiña gauzak ez dira olan izan. Ta euskeltzale azaldu diran askok be, naixago izan dabe eurak benderatzen ez dakixen erbesteko giputx-euskera erabiltzen alegindu; bestiena ondo ikasi ez ta norperarena aultzeko. Orregaittik, gaur, eitxen daben gaztien artian be bertako euskera gutxi entzutzen da. Baiña ez da nere asmua Eibarko euskera koittauaren illetak jotia. Or-konpon! guraso bakotxa bere konzientziagaz. Oin ain murriztuta daukagun erri-berbetia zer izan dan agertzia da gure bete biarra. Beste zenbait lekutan galdu zan euskera ezertariko agiririk laga barik, ta guriana beintzat, zikeran, geldittu da, eskerrak Toribio Etxebarriaren biarri. Beste-

(1) Severo de Altube: **Eibartarrak eta euskera**. "Euskera", V, 61/65 or. Bilbao, 1960. Erderismos'en be era berian jardun zan.

(2) "Orixe": **Zirikadak**. "Karmel", X urtea, iraill-urrilla, azkenengo orrialdian atzeko azalaren barrukaldetik. Larrea-Zornotza, 1960.

rik ezian, egunen batian linguïsten bati zerbiduko detsan agiri estimagarria. Ze, euskerian aldetik, euskeriaren zabaltasun guztiari begiratuta be, gutxienez, bertan, lelengo aldiz ipintzen dira berba, berbo ta gaiñerako forma asko moldezko letretan gordeta.

Ala nik itz'neurtze onek
dittut ezkutuan,
bestek ez dakixala
ze astunak goruan.
Baña bai nere aldetik,
jakin-jakiñian,
dozen'erdi lagunek
zori onenian,
dittuela irakorriko,
egiñaz kurutzak,
izentatzen nun diran
nere lanen utsak.
Bañan alegiñ onen
artian balitza,
bersoren bat gitxienez
betirako itza.
Ta lagun aitturen bat
a jasoko dabena
beteta litzake
nere itxaropena.

Orren kezka barik trankil geldittu deilla liburuaren egillea.

Azken parteko bertsua, esate baterako, IV'garren liburu-kuak, askoz obeto eiñak dare. Egiñaz, ikusten da, asko obetu eba-la bere bertso-gintzia. Lastimia egilliak berak lelentatik azkenera, barrin-barriz, orraztu biar eza. Obetuagotuta geldittuko ziran. III'garrenetik aurrera, irakorlia errez konturatuko da, bai estiluz eta bai joskeraz, aberatsago dabilela; biar bada, zenbaitten kontzejueri jaramon eittiarren, itzbarri (neologismo) larregixak kalte eitten detsa. Baiña ez ez-jakiñian; berak zenbaitt lekutan ondo diñuan letz, euskerian edertasuna bere sustraiakua dala, ta ez gero asmautako berba faltsuetakua.

I eta II'garren liburuak poema epiku eran eiñak dare, Bibliako etorkia ta Eibarko istorixia oiñarriztat arturik; III eta IV'ak era guztietara, benetakuak eta asmautakuak. Bertan dare "Ibilarixanak" be, liburu oni bere izena emoten detsenak.

Liburuak asko maitte dittuana dogu, ta liburuak asko maitte dittuen gizonak beti dira interesantiak. Ta, liburu guztien arte-tik, berak diñuanez :

Baña bat —Biblia Sacra—
nere bizi guztirakua ;
milla urtian baneu be
eziñ agortutakua

ain ugarixak dira bertan batuta daren jakitturixak eze, Biblia Vulgata latiñez irakorrixaz, Toribiok, kristau-erreformisten era-ko fediaeren kutsua daroia sinismenian, erderazko El Hijo del Hombre'n ikusi geinkianez. Orrez gaiñera, munduko azken ja-kintzak ùrretik jarraitzen dittu, "Sasi filosofuanak" esate batera-ko, erderazko beste Metafísica a Úrcola'n be erabiltzen dittuan geixak; sarri Kosmos'aren ideak olako garbi emonaz:

Euzkixa, izar artian,
suteiko txingar bat bezela,
Jaunan erloju zarrian
tik bat iraungo dabela.

Baiña ez uste zenbaitendako ain aspergarrixa dan jakitturiz-ko gauzegaz bakarrik diarduanik, erri-oittura eta batez be aintzi-ñako Eibarko oitturak sarri agertzen deskuz, bai oittura ta bai egizko gertaera, ta iñoiz Gregorio Mujika gandik onutzko isto-rixia ornitu biar bada, bai au ta bai Lexicón del euskera dialectal de Eibar (berba bakoxtaren ondorian, berbia bera zelan era-biltzen dan ezaupiderako, folklore, esaera zelebren, istorixako ata-lak eta abar dakar) eta batez be erderaz eiñ eban La experien-cia socialista en España, vista desde mi pueblo, ondo goguan izan biarko diraz.

Alegi-zarrak be euren lekua dauke, gauza barrixak esateko. Esopo'gandik Europan aintziña zabaldu zan literatura mota, naiz Esopo baiño len hinduak euren Panchatandra ta Hitopadesa'n

erabilixak. Euskaldunon artian be aintziñatik zabalduak dabiz erri-ipuiñetan, Barandiaran'ek ezautzera emon zittuan Eusko-Folklore orrixetan, eta baita Azkue berak be Euskalerriaren Yakinntza'ren bigarren tomuan. Ta, Samaniego, Vicenta Mogel eta Pascual Iturriaga'k eurak baiño lenagukuak diranak.

Naturaleza sientziak be lekua zabala dauka Ibiltarixaren kontaeretan. Gazte-gaztetatiko "hobby" auxen be.

Gero, "Parka gizonari" bertsuak daroien sentimentuzko ta pentsaerazko sakontasuna; "Erromerixa soñurakuak" errikoi gatzez beterik, gure bertsu zarren erara, triki-trirako eiñak: "Gure klasikuen esakerak", eibartar zirikalaxen graziaz beterik, eta abar, zabal bezin ugariak dira bertan darabixazen geixak.

Itzulpenak be ez daukaz edozein modutara eiñak. Ikusi beterik ez daukaguz "XII'garren gizaldiko arlote baten konfeziñua", gaiñera, au, latiñetik zuzenian euskeratua, bere bertsu neurria galtzeka. Izlauzkuak iñori zorrik ez detsela: Testamentu Zarreko Tamar, Huth, Bethsabe, Tobias eta Job; ta amaieran Margarita Nafarruako erregiñaren amabi ipuin, euskeraz lelengo aldiz agertzen diranak.

Onak dira ondorenerako emoten deskuzenak. Ibiltarixak ez dau laga lorratz lordiñik bera pasau dan lekuetan, ta bai gauza goguanguarrixak ugari.

Eibar, Martixa, 1967

Juan San Martin